



GAUTENA

ATARIKOA

GAUTENAK (Autismoa eta Autismoaren Espektroko Bestelako Nahasmenduak dituzten Pertsonen Senideen Gipuzkoako Elkarte, Gipuzkoako Autismo Elkarte ere deitua), konpromiso etikoan oinarrituz, autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) edo adimen-desgaitasuna (AD) eta/edo garapen-desgaitasuna (GD) duen pertsona bakoitzak eta bere familiak inklusioaren aldeko gizarte batean erabateko bizi-kalitatea lortzeko aukera egokiak eduki ditzaten behar diren laguntza pertsonalen kudeaketa sustatzen du.

GAUTENA autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen senideen elkarte bat da, 1978an sortua, eta hasiera-hasieratik administrazio publiko eskudunekin itunak egiten saiatu da, finantzatzen lagun diezaioten. Bere jarduteko eremu geografikoa Gipuzkoa izanik, GAUTENA autismo-sindromea zuten pertsonen laguntzeko zerbitzu-sare integral bat martxan jartzen hasi zen, hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, eta, urte batzuk geroago, Autismoaren Espektroko Nahasmendua (AEN) edo Adimen Desgaitasuna (AD) eta/edo Garapen Desgaitasuna (GD) zuten pertsona guztientzako eta haien senideentzako zerbitzuak ezartzen, bizi-ziklo osorakoak, betiere pertsona horien behar guztiei osotasunean erantzuteko asmoz.

GAUTENAREN proposamenak positiboki hartu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eta, Gizarte Zerbitzuen, Hezkuntzaren eta Osasunaren esparruetatik, pixkanaka, GAUTENAK eskaintzen zituen zerbitzu espezializatuen funtzionamendua lagundu eta sendotu zuen, bai ekonomikoki bai kontzeptualki.

Ondorioz, GAUTENAK laguntza-premia handiena duten pertsonentzako Arreta Intentsiboko Zerbitzuak kudeatzen ditu (giza baliabide, baliabide ekonomiko eta material gehien eskatzen dituztenak). Arreta Intentsiboko Zerbitzu horien barruan, Hezkuntza, Eguneko Arreta eta Etxebizitza zerbitzuak sartzen dira, eta horiek abiaraztea izan zen, artatutako lehen pertsonen bizi-zikloari jarraituz, GAUTENA sortzeko arrazoia eta elkartearen helburua, hain zuzen ere. Horiekin batera, GAUTENAK honako zerbitzu hauek ere ematen ditu gaur egun: Diagnostiko eta Tratamendu Anbulatoriokoak, Aldi Baterako Egonaldiak, Aisialdi zerbitzua eta Familientzako Laguntza.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T3GQM-Z48R bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T3GQM-Z48R en la sede electrónica <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

Gipuzkoako Autismo Elkarte • Asociación Guipuzcoana de Autismo



GAUTENA

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- GAUTENA elkarteak (Autismoa eta Autismoaren Espektroko Bestelako Nahasmenduak dituzten Pertsonen Senideen Gipuzkoako Elkarte, Gipuzkoako Autismo Elkarte ere deitua), irabazi-asmorik gabeak eta Donostian kokatuak (1978ko abuztuaren 1ean eratu zen eta 1978ko abuztuaren 24an Elkartearen Probintzia Erregistroan inskribatu, 991 GPE erregistro-zenbakia, 1. atala), bere estatutuak aldatu ditu, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Elkarteeri buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoari jarraituz, 2021eko azaroaren 24an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean hala erabakita.

Arau hauek zuzenduko dute Elkarteak: elkarteeri buruzko aipatutako legeek, Estatutu hauek (Legearen aurkakoak ez diren heinean), Elkartearen gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiek (Legearen eta/edo Estatutuen aurkakoak ez diren heinean) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenek, ordezkio modura.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Honako hauek dira Elkartearen helburuak:

- a) Konpromiso etikoan oinarrituz, autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) edo adimen-desgaitasuna (AD) eta/edo garapen-desgaitasuna (GD) duen pertsona bakoitzak eta bere familiak inklusioaren aldeko gizarte batean erabateko bizi-kalitatea lortzeko aukera egokiak eduki ditzaten behar diren laguntza pertsonalen kudeaketa sustatzea.
- b) Gizartean autismoari buruzko kontzientziazioa indartzea, hainbat bitartekoren bidez.
- c) Edozein esparrutako antzeko elkarteekin harremanak sortzea eta sendotzea.
- d) Tratamendu edo aurkikuntza zientifiko berriei etengabeko arreta eskaintzea eta horiek egiten laguntzea.



GAUTENA

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Elkaratearen egoitza soziala Donostian egongo da, Francisco López Alen kaleko 4. zenbakian.

Elkaratearen egoitza soziala eta gainerako lokalak lekuz aldatu nahi izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak hartu beharko du erabaki hori eta Elkarteen Erregistroari helbide berria jakinarazi beharko dio.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugek zedarritutako lurralde-eremuan garatuko ditu nagusiki bere eginkizunak.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izango da eta Ezohiko Batzar Orokorrak hala erabakiz gero bakarrik desegingo da, VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera edo legeetan aurreikusitako edozein arrazoiengatik.

Elkaratearen barne-antolamenduak eta funtzionamenduak pluraltasuna erabat errespetatu beharko dute. Elkarteko oinarritzko eskubidearen edozein alderdi urratzen duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak erabat deusezak izango dira.

NORTASUN JURIDIKOA

6. artikulua.- Elkarreak berezko nortasun juridikoa du, elkarkekideenaz apartekoa, eskubide eta betebeharren subjektu izateko gaitasun osoa, eta mota guztietako ondasunak -salmenta, truke edo jaraunspenez eskuratuak- edukitzeko legezko ahalmena, baita horiek saltzeko, trukatzeko, hipotekatzeko edo horien erabilera erabatekoa eta askea barne hartzen duen edozein figura juridiko baliatzeko ahalmena ere, Legeari eta Estatutu hauei jarraituz.



GAUTENA

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

7. artikulua.- Kide anitzeko honako organo hauek arduratuko dira Elkartea gobernatu eta administratzeaz:

- Bazkideen Batzar Orokorra: organo gorena, elkartekide guztiez osatua.
- Zuzendaritza Batzordea: kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra, elkartea gobernatzeko eta kudeatzeko eginkizunak beteko ditu.

Batzar Orokorreko eta Zuzendaritza Batzordeko kide edo titularrek, eta elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duten gainerako pertsonak, doloaz, erruzko edo zabarkeriazko egintzen ondorioz kalterik eragin edo zorrak sortzen badituzte, elkartearen aurrean, elkartekideen aurrean eta hirugarrenen aurrean erantzun beharko dute.

Era berean, beren eginkizunen betetzean egindako egintzen edo egin gabe utzitakoen gaineko erantzukizun zibila eta administratiboa izango dute, baita erantzukizun penala ere, halakorik eragiten badute.

BATZAR OROKORRA

8. artikulua.- Elkartekide guztiek osatzen dute Batzar Orokorra, beren eskubidez, eta ordezkari bat izendatu dezakete, Estatutu hauetako 14. artikuluan adierazitako moduan.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak honako eskumen eskusibo hauek izango ditu:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra eztabaidatzea, zehaztea eta onartzea.
- b) Urteko kontuak eta aztertzea eta onartzea, eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua eztabaidatzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Zuzendaritza Batzordea osatuko duten bazkideen izendapenak onartzea, baita haien karguak ere, Zuzendaritzak proposatutakoari jarraituz. Nolanahi



GAUTENA

ere, Zuzendaritza Batzordeko bazkide izateko hautagaitza proposatuko zaie Zuzendaritzak proposatu ez baditu ere gutxienez elkartekideen % 5en bermea aurkezten duten pertsoneri.

- e) Kuota arruntak edo apartekoak finkatzea. Batzar Orokorrak ahalmen hori Zuzendaritza Batzordeari eskuordetu diezaioke, berariazko erabaki baten bidez.
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Elkartea desegitea.
- h) Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko egintzak, edo horietako batzuk uztekoak.
- i) Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria eta Diruzaina hautatzea eta kargutik kentzea, baita kontu-hartzaileak ere, Zuzendaritzak proposatutakoari jarraituz.
- j) Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenak gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- k) Ondasun higiezinaren eskuratzea edo besterentzea onartzea.
- l) Elkartekideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- m) Elkartearen beste organo bati esleitu ez zaion beste edozein ahalmen.

10. artikulua.- Batzar Orokorrak, urtean behin, bigarren hiru hilekoan, ohiko batzarra egingo du, gutxienez 9. artikuluko a), b) eta c) letretan aurreikusitako erabakiak hartzeko. Horrez gain, ezohiko batzarrak egingo ditu, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, edo elkartekideen herenak eskatzen duenean, bilera egiteko arrazoiak eta helburua adieraziz.

Bazkideek telematikoki, bideokonferentzia bidez edo beste bitarteko elektroniko batzuen bidez parte hartu ahal izango dute Batzar Orokorraren bileran, betiere elkarreak bitarteko horiek erabiltzeko aukera ematen badu eta parte hartuko duten elkartekideak ezagutzea eta identifikatzea bermatzen bada, baita bileran elkarrekin etengabe komunikatuta egotea ere.



GAUTENA

Edukiaren fede emateko, bilera horien akta egingo da. Idazkariak idatziko du eta onarpena Batzar Orokorrak izendatutako bi kontu-hartzailek, Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak eta Diruzainak emango diote.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egingo dira, bilera non, noiz eta zein ordutan egingo den zehaztuz, baita gai-zerrenda ere, aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adierazita. Gainera, euskarri-dokumentuak jarriko dira bazkideen esku. Deialdiaren eta Batzarra lehenengo deialdian biltzeko ezarritako egunaren artean gutxienez hogeita hamar eguneko tartea egon behar du. Deialdi horretan, egokia bada, Batzarra bigarren deialdian biltzeko eguna eta ordua ere adierazi ahal izango dira. Nolanahi ere, bilera baten eta bestearen artean gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar Orokorraren bilerak, bai ohikoak bai ezohikoak, lehenengo deialdian behar bezala eratuta geratzeko, elkartekideen erdiak gehi batek parte hartu behar dute, beren kabuz edo behar bezala ordezkatuta; bigarren deialdian, berriz, parte hartzen duten bazkideen kopurua edozein izan daiteke.

12. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria eta Idazkaria izango dira Batzar Orokorreko Lehendakaria eta Idazkaria ere, hurrenez hurren.

13. artikulua.- Erabakiak hartzea

13.I.- Gai arruntak.-

Batzar Orokorraren erabakiak parte hartzen duten elkartekideen edo horien ordezkarien gehiengo soilez hartuko dira. Bazkide guztiek bozkatzeko gaiak honako hauek izango dira:

- a) Elkarrearen jardueraren Plan Orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Kuota arruntak edo apartekoak finkatzea. Hala ere, Batzar Orokorrak ahalmen hori Zuzendaritza Batzordeari eskuordetu diezaioke, berariazko erabaki baten bidez.



GAUTENA

- e) Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko egintzak edo horietako batzuk uztekoak.
- f) Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta beste edozein kargudun hautatu, berrautatu eta kargutik kentzea, baita pertsona horien jarduna gainbegiratu eta kontrolatzea ere.
- g) Ondasun higiezinaren eskuratzea edo besterentzea onartzea.
- h) Elkartekideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- i) Estatutuak aldatzea, hurrengo 13.II.a) apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- j) Elkartea desagitea, 13.II.b) apartatuan xedatutakoaren arabera.
- k) Eta elkaratearen beste organoei esleitu gabeko beste edozein eskumen, 13. artikuluko honetako hurrengo II. apartatuan aipatu ez dena.

13.II.- Gai kualifikatuak. -

Elkartekide guztien –bai Batzarrean daudenak, bai boto ordezkaturak dutenak- % 80en aldeko botoa eduki beharko da honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Arreta Intentsiboko Zerbitzuak kaltetzen dituen, edo horien aurrekontu-zuzkidura txikitzen duen edo bestela horiek aldatzen dituen edozein erabaki, horien egungo edo etorkizuneko onuradunen kaltetarako bada. Ildo horretan, Arreta Intentsiboko Zerbitzuak dira atarikoan definitutakoa; hots, Hezkuntza, Eguneko Arreta eta Etxebizitza Zerbitzuak.

- b) Elkartea desagitea

13.III. - Jasota geratzen da bi elkarte-kuota edo Elkarateak emandako edozein zerbitzu ez ordaintzeak, zehapen gisa, elkartekideei boto-eskubidea kentzea dakarrela, Estatutu hauetako 38. artikuluan xedatutakoaren arabera».



GAUTENA

14. artikulua.- Batzar Orokorraren bileretan parte hartzeko, elkartekidea den edozein pertsona edo senide beren ordezkari izendatu ahal izango dute elkartekideek. Ordezkapen hori idatziz jasoko da eta Batzarreko Idazkariaren eskutara iritsi beharko du, bilkura egin baino gutxienez 24 ordu lehenago. Elkartearen egoitza soziala dagoen hirian ez beste batean bizi direnek postaz bidali ahal izango dute ordezkapenaren egiaztagiria.

Elkartekide izan ez arren elkarteari laguntzen dioten hirugarrenek, GAUTENAK gonbidatuz gero, Batzar Orokorraren bileretan parte hartu ahal izango dute. Horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina bozkatzeko eskubiderik ez.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

15. artikulua.- Elkartearen interesak Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzarauen arabera kudeatu eta ordezkatzeko dituen ordezkaritza-organoa da Zuzendaritza Batzordea.

Zuzendaritza Batzordea bazkideek aukeratutako gutxienez 10 kidez osatuta egongo da, kargudunak barne, eta gehienez ere 20 kidez. Besteak beste, Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzain karguak izango ditu; gainerakoak batzordekideak izango dira.

Zuzendaritza Batzordeak, bere osaerari dagokionez, Elkartean dagoen Zerbitzu bakoitzeko gutxienez ordezkari bat izan beharko du eta, Arreta Intentsiboko Zerbitzuen kasuan, bere pisu espezifikoarekin (aurrekontu orokorra, langileak...) bat datorren ordezkaritza bat. AENren errealitate guztien ordezkaritza egoki bat izango du gainera, laguntza-behar gutxien duten pertsonak eta emakumeak barne. Batzordea osatzeko, elkartearen lurralde-banaketa kontuan hartu eta genero-berdintasuna izateko ahalegina egingo da.

Elkartekide izan ez arren elkarteari laguntzen dioten hirugarrenek, GAUTENAK gonbidatuz gero, Zuzendaritza Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango dute. Horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina bozkatzeko eskubiderik ez.

Zuzendaritza Batzordeko kideen karguak doakoak eta ohorezkoak izango dira, haien agintaldiaren iraupena hiru urtekoa, heren bakoitzeko berriztagarria, eta berriz hautatu ahal izango dira. Zuzendaritza Batzordeak hutsik geratzen diren karguak behin-behinean bete ahal izango ditu, Batzar Orokorrak izendapenak berretsi arte.



GAUTENA

Gutxienez hiru hilean behin bildu beharko dute, eta Lehendakariak, egokitzen jotzen duela-eta, biltzeko deia egiten duen bakoitzean. Horretarako, aldeztu aurretik deialdia egin beharko da eta, erabakiak baliozkoak izan daitezen, gutxienez kideen erdiak parte hartu beharko dute. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoa erabakitzailea izango da.

Zuzendaritza Batzordeko kideek telematikoki, bideokonferentzia bidez edo beste bitarteko elektronikoko batzuen bidez parte hartu ahal izango dute bileretan, betiere elkarteak bitarteko horiek erabiltzeko aukera ematen bada eta parte hartuko duten pertsonak ezagutzea eta identifikatzea bermatzen bada, baita bileran elkarrekin etengabe komunikatuta egotea ere.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak aukeratuko ditu Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzain karguak beteko dituzten pertsonak, Zuzendaritza Batzordeko kideen artean, Zuzendaritza Batzordeak proposatutakoaren arabera.

Halaber, bi kontu-hartzaile izendatuko ditu, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Estatutu hauetako 10. artikuluan xedatutako ondoretarako.

Kargurako izendatutako pertsonak gaixotzen badira edo falta badira, halabeharrez ordezkatu ahal izango dira, Lehendakariak horretarako izendatutako pertsonen bidez.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe, eta indarrean dagoen legedian adierazitako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- Konkurtsopean ez egotea, ezta kargu publiko edo pribatuak betetzeko gaitasungabetuta ere.
- Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- Elkartekidea izatea.



GAUTENA

18. artikulua.- Batzar Orokorrak izendatu ondoren, kargua onartu edo karguaz jabetzean hartuko da Zuzendaritza Batzordeko kide kargua.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dute beren kargua:

- a) Agintaldia amaitzen denean.
- b) Dimisioa ematen badute.
- c) Elkartekide izateari uzten badiote, edo kargua betetzeko ezintasun-egoeran badaude.
- d) Batzar Orokorrak kanporatzea erabakitzen badu.
- e) Heriotza.

Zuzendaritza Batzordeko kide izateari uzteko arrazoia a) apartatuan aurreikusitakoa bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute, Batzar Orokorrak lehenengo bilera egin arte, izendapena berretsi edo baliogabetzeko. Azken kasu horretan, dagokion izendapena egingo da.

Elkarteen Erregistroari organo horren osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean. Horretarako, gai estrategikoen berri emango zaie aldian-aldian bazkideei.
- b) Elkartek egin beharreko jarduerak programatzea.
- c) Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Orokorrari aurkeztea, onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bilkuretako gai-zerrendak egitea, eta bai ohiko bai ezohiko Batzar Orokorrarako deialdiak egiteko erabakia hartzea.
- e) Elkartekideek egindako proposamen edo iradokizunei erantzutea, eta horretarako beharrezko neurriak hartzea.



GAUTENA

- f) Estatutu hauetan jasotako manuak interpretatzea eta haien hutsuneak betetzea, betiere indarrean dagoen elkarteei buruzko legediari jarraituz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabaki baten bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere haren eskumen eskusibokoak ez badira.
- h) Mota guztietako titulu-baloreak, eta gainerako ondasunak, higigarriak, landa- eta hiri-finkak eta mota guztietako higiezinak, eskubide pertsonalak eta errealak, eta batzuen eta besteen partaidetzak, zatigarriak edo zatiezinak, erosi, saldu, trukatu eta besterentzea, eta edozein tituluren bidez eskuratu edo besterentzea, eta horretarako prezioa, baldintzak eta ordaintzeko moduak finkatzea. Era guztietako berme pertsonal edo errealak ematea eta onartzea, hala nola bahia, antikresia, ondasun higigarri eta higiezinaren gaineko hipoteka, fidantza, abala eta beste edozein, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
- i) Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko eskubideak eratu, aitortu, luzatu, aldatu, atzeratu, uko egin, eskualdatu eta azkentzea; zehazki, gozatzekoak, erabiltzekoak, bizitzekoak, enfitesusia, erroldatzekoak, zortasun-eskubideak -pertsonalak edo errealak-, hipotekatzekoak, bahitzekoak, antikresia, azalera-eskubideak, lehentasunez erostekoak, atzera eskuratzekoak, erosteko aukera izatekoak, errentamendukoak eta mota guztietako eskubideak, pertsonalak eta errealak.
- j) Zuzendaritza bat izendatzea, betiere Elkartearen egoera ekonomikoak horretarako aukera ematen badu, honako eginkizun hauek betetzeko:
- Elkartea zuzendu eta administratzea.
 - Zuzendaritza Batzordeari aholkularitza eta laguntza ematea.
- k) Zuzendaritza Batzordeak, halaber, edozein lurralde-eremutako edozein banku-erakunderekin eta antzekoekin mota guztietako banku-eragiketak formalizatzeko eskuduntza nahikoak ditu, ildo honetan:
1. Edozein banku-kontu, gauzazko ezarpen eta kreditu-kontu ireki, jarraitu, aldatu, luzatu eta azkentzea; kontu horietara dirua sartu edo horietatik atera eta mugitzea, horretarako kobratzeko eta ordaintzeko edozein agiri sinatuz.
 2. Kanbio-letrak eta antzeko igorpen- edo kreditu-dokumentuak igortzea, ordaintzea, onartzea, endosatzea, esku hartzea, negoziatzea, deskontatzea, abalatzea eta protestatzea.
 3. Abalak eta fidantzak kudeatzea, lortzea eta ematea.



GAUTENA

4. Eskudiruzko gordailuak eta mota guztietako baloreak eratzea, luzatzea, aldatzea eta azkentzea, kupoiak eta etekinak kobratzea.
5. Kreditu-polizak eta antzeko beste edozein banku-agiri sinatzea.

Blanco

21. artikulua.- Lehendakariak edo, kasuan-kasuan, Lehendakariordeak erabakitzen duen guztietan bilduko da Zuzendaritza Batzordea, haren ekimenez edo kideetako edozeinek eskatuta. Lehendakaria izango da burua, bera ez badago Lehendakariordea, eta, biak falta badira, batzordekide zaharrena.

22. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak bere jardunerako beharrezkoak diren Erregelamenduak onartuko ditu. Langile lan-kontratudun guztien izendapena egitea eta eskuduntzak eta ordainsariak zehaztea bere eskumen eskusiboa izango da, hala komeni bada. Ildo horretan, Zuzendaritza bat izendatu ahal izango du, eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzeko.

23. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, erregelamenduak aplikatuz, eskatzaileak ez onartzeko aukera izango du, nahiz eta aurrez ezarritako baldintzak bete, horretarako arrazoi bereziak baldin badaude. Era berean, pertsona artatuak alde batera utzi ahal izango ditu, kontsiderazio jakin batzuen arabera neurri hori hartzea komeni bada.

Blanco

24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak beste batzorde batzuk izendatu ahal izango ditu –Zuzendaritzako kargudun eta kidez, beste elkartekide batzuez edo pertsona jakin batzuez osatuak–, jarduera normalak edo halabeharrezkoak garatzeko eta egiteko, bere lana ahalik eta eraginkortasunik handienarekin egiteko.

25. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak probintziako edo eskualdeko ordezkariak izendatzeko ahalmena du. Ordezkar horiek elkartekideen artean aukeratuko ditu eta haien zereginak elkartearen nork bere herrian ordezkatzeko eta bertan elkartearen interesentzat onuragarria den kanpaina eta propaganda oro sustatzea izango dira. Ordezkariek Zuzendaritza Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango dute.



GAUTENA

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

26. artikulua.- Elkarteko Lehendakaria elkartearen legezko ordezkaria izango da, Zuzendaritza Batzordeko eta Batzar Orokorreko lehendakaria ere izango da eta bi organo horiek hartutako erabakiak betearaziko ditu.

27. artikulua.- Lehendakariak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Orokorra biltzeko deiak egitea eta bilerei amaiera ematea, bileretako eztabaidak zuzentzea eta, bozketetan berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa ematea.
- b) Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen jarduera-plana proposatzea eta haren zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak agintzea.
- d) Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki baten bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, haren eskumen eskusibokoak ez badira.
- f) Erregelamendua zehatz-mehatz betetzen dela zaintzea.
- g) Erregelamenduarekin lotutako intereseko dokumentu guztiak eta Elkartearen bizitzarekin eta gobernuarekin lotutakoak bere sinaduraren bidez baimentzea edo zeregin hori Lehendakariordeari eskuordetzea.
- h) Ezohiko kasuetan, urgentzia dela-eta Zuzendaritza Batzordea edo Batzar Orokorra biltzeko deialdirik egiterik ez dagoenean, behar diren erabakiak hartzea, beti erregelamenduaren muinean oinarrituz, eta Zuzendaritza Batzordeari erabakien berri ematea, hurrengo bileran edo ezohiko bilera baterako deia eginez, beharrezkoa bada.



GAUTENA

LEHENDAKARIORDEA

28. artikulua.- Lehendakariordeak Lehendakariaren laguntzaile-lanak beteko ditu eta, horrek aldi batez kargua betetzeko ezintasuna badu, ordezkatu egingo du. Halaber, Lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion eskumen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

29. artikulua.- Idazkariak Elkartearen jakinarazpen guztiak idatzi eta Lehendakariarekin batera sinatuko ditu. Batzar Orokorraren onarpena behar duten Elkartearen intereseko hainbat dokumentuz arduratuko da: Akta-liburuez, Bazkideen erregistroaz, kontu-liburuaz, Alta eta Bajeaz eta fitxategi orokorraz, korrespondentziaz eta horren artxiboaz eta Zuzendaritzaren erabakien indizeaz. Zuzendaritza Batzordeari behar duen laguntza guztia eskatu ahal izango dio eta batzordekideek emango diote laguntza hori.

DIRUZAINA

30. artikulua.- Diruzaina baliabide ekonomikoak zaintzeaz eta aurrekontu- eta kontabilitate-betebeharrak eramateaz eta betetzeaz arduratuko da.

31. artikulua.- Banku-erakundeek, aurrezki-kutxen, Estatuko erakunde ofizialen eta abarren aurrean kontu korronteak eta libretak ireki eta ezerezteko ahalmena, hala nola itzulketak, taloiak, transferentzia-aginduak edo elkartearen funtsak erabiltzeko beste edozein modu sinatzekoa, Lehendakariak, Lehendakariordeak eta Diruzainak izango dute. Horietako bik batera sinatzea beharrezkoa eta nahikoa izango da.

BATZORDEKIDEAK

32. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kargurik gabeko kideak dira batzordekideak.

Lehendakariaren, Lehendakariordearen eta Diruzainaren laguntzaile-lanak betetzea izango da haien eginkizuna, eta, beharrezkoa denean, horiek ordezkatu egingo dituzte, Zuzendaritzak aldeztu aurretik hala erabakita, kargu



GAUTENA

bakoitzari esleitutako betebeharrak eta eskubide berberekin, hutsik geratutako karguak betetzeko hautaketa egiaztatzen den arte.

Zuzendaritza Batzordeko kideek bileretara joateari uzten badiote edo Elkarteko gaietan parte hartzen ez badute, 6 hilabete baino gehiagoz, aldezturik, abisurik edo hori justifikatzen duen arrazoirik eman gabe, Zuzendaritza Batzordeak errekeritu ahal izango ditu eta, bere errekerimenduei erantzun ezean, Batzordetik kanporatu ahal izango ditu.

Blanco Gargueta



GAUTENA

HIRUGARREN KAPITULUA

ELKARTEKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

33. artikulua.- Elkartearen zerbitzuak jasotzen dituen pertsona artatua, edo hark izendatutako pertsona artatuaren senidea edo bere legezko ordezkaria izan daitezke GAUTENAKO bazkideak.

34. artikulua.- Bazkide izateko, adinez nagusia izan beharra dago eta, pertsona fisikoen kasuan, jarduteko gaitasuna izan behar dute.

Pertsona juridikoen kasuan –Elkartearen zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen legezko ordezkariak izan beharko dute, 33. artikuluan xedatutakoaren arabera–, beren organo eskudunak, berariazko erabaki baten bidez, elkartekide izateko asmoa adierazi beharko du, baita ordezkaria nor izango den ere.

35. artikulua.- Elkartekide izan nahi duten eta estatutu hauetako 33. eta 34. artikuluetan aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak Elkarteko edozein zerbitzu AEN edo AD eta/edo GD duen pertsonari arreta ematen hasteko izapideak egin beharko dituzte.

36. artikulua.- Hileko hiru kuota zor izanik horiek ordaintzeari uko egiten dion pertsona orori eta arauzko betebeharrak betetzen ez dituen orori Elkartean baja emango zaio.



GAUTENA

ELKARTEKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

37. artikulua.-

1. Legeak eta estatutu hauek aitortutako beste eskubide eta betebeharrak batzuei kalterik egin gabe, Elkarteko kideek honako eskubide eta betebeharrak hauek izango dituzte:

Eskubideak:

- a) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen aurkako erabaki eta jarduerak aurkaratzea, eta erantzukizunak eskatzea, berrogei egun naturaleko epean, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu dutenetik edo ezagutzeko aukera izan dutenetik hasita.
- b) Elkaratearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- c) Elkarteko gainerako kideen nortasuna, diru-sarrera eta gastuen kontuen egoera eta Elkaratearen jardueraren garapena edozein unetan ezagutzeko eskubidea.
- d) Batzar Orokorren bileretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea. Horretarako, hirugarren bat ordezkari izendatu dezakete, Estatutu hauetako 14. artikuluan jasotako baldintzetan. Nolanahi ere, artatutako pertsona bakoitzeko boto bakarra emango da.
- e) Elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea, Estatutu hauen arabera, eta organo horietarako hautesle eta hautagai izatea.
- f) Indarreko legedian aipatutako bazkideen fitxategian agertzea, eta Elkaratearen ikurra erabiltzea, halakorik balego.
- g) Estatutuen eta Barne Araudiaren ale bana izatea, halakorik balego, eta zuzendaritza-organoen aurrean eskaerak eta kexak aurkeztea.
- h) Elkaratearen ekitaldi kolektiboetan parte hartzea eta elkartekide guztiek erabiltzekoak diren elementuez (elkaratearen lokalak, liburutegiak...) gozatzea, Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzean xedatzen duen moduan.



GAUTENA

- i) Diziplina-neurriak ezarri aurretik, esateko duena idatziz adierazteko aukera izatea, eta neurri horiek eragin dituzten egitateei buruzko informazioa jasotzea. Elkartekideari zehapena ezartzea erabakiz gero, erabakia arrazoitu egin beharko da, eta elkartekide gisa dituen betebeharrak ez betetzean baino ezingo da oinarritu.
- j) Elkartekak eskainitako onurak eta zerbitzuak erabiltzea, dagozkien helburuei jarraituz eta horretarako zehazten diren arauen arabera.
- k) Batzar Orokorraren bileretarako deia jaso, haietan parte hartu eta eztabaidatzeko eskubidea.
- l) Elkartearen bazkideen liburua, akta-liburua eta kontu-liburua eskuratzeko eskubidea, datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako moduan.
- m) Edozein unetan baja eman ahal izatea, hartutako konpromiso bete gabeak betetzeari kalterik egin gabe.

Betebeharrak:

- a) Elkartearen helburuak lortzen aktiboki laguntzea.
- b) Gastuei aurre egiten laguntzea, kuotak, derramak eta ezartzen diren bestelako ekarpenak garaiz ordainduz.
- c) Estatutu hauek eta Elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kide izatea, aukeratuak izanez gero.

2. Zuzendaritza Batzordeak elkartekide bakoitzak ordaindu beharreko hileko edo urteko kuota zehazteko eta aldatzeko proposamena Batzar Orokorrari helaraziko dio.



GAUTENA

ZEHAPEN-ARAU BIDEA

38. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak elkartekideak zigortu ahal izango ditu, estatutuak edo dela Batzar Orokorrak dela Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausten badituzte.

Eskubideak behin-behineko kentzetik hasita (15 egunetik hilabetera bitarteko epean) Elkartetik behin betiko kanporatzerainokoak izan daitezke zehapenak. Bereziki, mugarik gabe, elkartekideak bi elkarte-kuota edo elkarteak emandako edozein zerbitzu ordaintzen ez baditu, Batzarraren bileretan botoa emateko eskubidea galduko du, baita bilerarako deialdia eskatzeko eskubidea ere.

Horretarako, Lehendakariak ikerketa bat abiaraztea erabaki ahal izango du, zehagarriak izan daitezkeen jokabideak argitzeko. Jarduketa horiek Idazkariak eramango ditu aurrera eta Zuzendaritza Batzordeari beharrezko neurriak hartzeko proposamena egingo dio. Zuzendaritza Batzordeak izango du zehapenak ezartzeko eskumena, baina, aurretik, interesdunari esateko duena idatziz adierazteko aukera eman behar dio.

Erabaki hori beti arrazoitua izango da eta Batzar Orokorraren aurrean errekurritu ahal izango da, estatutu hauetan aurreikusitako akzioak gauzatzeari kalterik egin gabe.

ELKARTEKIDE IZATEARI UZTEA

39. artikulua.- Honako kasu hauetan utziko zaio elkartekide izateari:

1. Elkartekidea hiltzen bada (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegiten bada) edo pertsona artatua hiltzen bada.
2. Elkartea bere borondatez uzten badu.
3. Zuzendaritza Batzordeak zehapen baten ondorioz Elkartetik kanporatzen badu, honako egoeraren batengatik: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta/edo Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakietatik eratorritakoak larriki urratzeagatik, nahita eta behin eta berriz.



GAUTENA

40. artikulua.- Elkartekideren bat 39.3 artikuluan araututako kasuren batean egonez gero, Lehendakariak Idazkariari aldez aurreko eginbide jakin batzuk egiteko agindu ahal izango dio, beharrezko informazioa lortzeko eta, hori aztertuta, Lehendakariak jarduketak artxibatzeke edo zehapen-espedientea hasteko agindu ahal izango du.

41. artikulua.- 39.3 artikuluan araututako kasuetako edozeinengatik zehapen-espediente bat hasten bada, Idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, interesdunari idazki bat bidaliko dio, egozten zaizkion karguak azaltzeko. Interesdunak idazki horri erantzun ahal izango dio, hamabost eguneko epean, bere burua defendatzeko egokituz jotzen duena alegatuz. Epe hori igarotakoan, edozein kasutan, gaia Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gairerrendan sartuko da eta organo horrek erabakiko du, kideen erdia gehi bateko *quorum*-arekin.

Kanporatzea erabakiz gero, interesdunari jakinaraziko zaio eta egiten den lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrean horren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango duela adieraziko zaio. Hiru hilabeteko epean Ezohiko Batzarrerako deirik egiten ez bada, helburu horretarako bakarrik deituko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erruztatuari bazkide gisa dituen eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta, Zuzendaritza Batzordeko kidea bada, kargua kendu beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak haren laburpen bat egingo du, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrari erruztatuak aurkeztutako idazkiaren eta egitateen berri behar bezala emateko, azken horrek dagokion erabakia hartu dezan.

42. artikulua.- Kanporatzeko erabakia beti arrazoitua izango da eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Interesdunak, dagokion eskubidea baliatuz, auzitegiara jo ahal izango du, erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa dela uste badu.

43. artikulua.- Elkartekide bati Elkartetik kanpo geratuko dela jakinarazten zaionean, dela bere borondatez utzi duelako dela zehapen baten ondorioz, betetzeke dituen Elkartearikiko betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, halakorik badago.



GAUTENA

LAUGARREN KAPITULUA

GAUR EGUNGO ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAU BIDEA

44. artikulua.- Elkaratearen gaur egungo ondarea 5.220.869 eurokoa da.

45. artikulua.- Elkarateak bere jarduerak egiteko aurreikusitako baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a) Elkartekideen kuotak.
- b) Dagozkion ondasun eta eskubideen emaitzak, baita lege jasotzen dituen dirulaguntzak, jaraunspenak, legatuak eta dohaintzak ere.
- c) Elkarateak, Zuzendaritza Batzordeak erabakita egiten diren legezko jardueren bidez, lortzen dituen diru-sarrerak -betiere estatutu-helburuen arabera- jarduerak izango dira-.
- d) Antzeko beste edozein sarrera.

Elkaratearen jarduketa eta ekitaldi ekonomikoa urtekakoak izango dira eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira.

Elkarateak jarduera ekonomikoak gauzatzearen ondorioz lortutako etekinak -zerbitzuen bidez lortutakoak barne-, bere helburuak betetzera soilik bideratu beharko dira, eta ezingo dira inola ere banatu elkartekideen artean, haien ezkontideen artean edo antzeko afektibitate-harremana izanda elkartekideekin bizi diren pertsonen artean, ezta haien senideen artean ere, eta ezingo zaie doan laga irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei.



GAUTENA

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

46. artikulua.- Estatutuak aldatu nahi izanez gero, bazkideen Ezohiko Batzar Orokorrean hartu beharko da erabakia, horretarako berariaz deitutako bilera batean, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, bere ekimenez edo elkartekideen % 33k hala eskatu dutelako. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak hiru elkartekidez osatutako Batzorde Txostengile bat izendatuko du, aldaketa-proiektua idatz dezan, Zuzendaritzak emandako jarraibideei jarraituz eta organo horrek berak zehaztuko eperako.

47. artikulua.- Aldaketa-proiektua adierazitako eperako idatzi ondoren, Lehendakariak egiten den Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilerako gai-zerrendan sartuko du. Bilera horretan, proiektua onartuko da edo, bestela, Batzorde Txostengileari itzuliko zaio, berriz azter dezan.

Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak horretarako egingo den Ezohiko Batzar Orokorraren gai-zerrendan sartzea erabakiko du.

48. artikulua.- Batzarrerako deialdiarekin batera, Estatutuen aldaketaren testua jasoko da, bazkideek Idazkariari egokitzat jotzen dituzten zuzenketak helaraz diezazkioten, batzarra egin baino gutxienez hamabost egun lehenago.

Zuzenketek, banakakoek zein kolektiboek, testu alternatiboa jaso beharko dute. Edukia bazkideen esku jarriko da aurkezteko epea amaitu eta hurrengo zazpi egunetan. Zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Batzar Orokorrak estatutu-testu berri bat onartzen badu, elkartekideek nahitaez bete beharko dute testu hori, onartzen duten unetik aurrera, eta, Euskadiko Elkartearen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera, hirugarren alderdien aurrean ondorioak izango ditu.



GAUTENA

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA HAREN ONDAREA APLIKATZEA

49. artikulua.- Elkartea honako kasu hauetan desegingo da:

1. Elkartekideen borondatez, horretarako deitutako Batzar Orokorraren bilera batean hala adierazten badute.
2. Estatutuetan ezarritako epea edo baldintza betetzen denean.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko elkartekide-kopurua ez izateagatik, estatutuetan kopuru hori osatzeko epe bat aurreikusita izateari kalterik egin gabe. Epe hori ez da inoiz urtebetetik gorakoa izango, azken baja ematen denetik zenbatzen hasita.
5. Ebazpen judizial irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

50. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegitea erabakitzen den Batzar Orokorraren bileran Likidazio Batzorde bat izendatuko da. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko bost kidez osatuta egongo da eta dauden funtsez arduratuko da.

Likidazio Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Likidazio-balantzea egitea eta ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratzea, data horretakoekin bat etor dadin.
- b) Ondarearen osotasuna zaintzea, beharrezkoak diren kontserbazio-egintza guztiak eginez.



GAUTENA

- c) Amaitu gabe dauden eragiketak amaitzea, eta likidazioarekin lotura hurbila edo zuzena izanik egin beharrekoak diren beste eragiketa guztiak egitea.
- d) Zorrak ordaintzea eta elkarteak gauzatzeke dituen betebeharrak betetzea.
- e) Kredituak kobratzea eta elkartearen titulartasuneko eskubideak eskatzea.
- f) Elkartearen ondasunak eta eskubideak gauzatzea, egokitzen jotzen bada.
- g) Soberako ondarea aplikatzea, estatutuen arabera eta Batzar Orokorrak erabakitako moduan.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorreko idazpenak ezerezteko eskatzea.

Elkarteak kaudimenik ez badu, Lehendakaria edo, kasuan-kasuan, Likidazio Batzordea arduratuko da berehala dagokion konkurtso-prozedura sustatzeaz epaile eskudunaren aurrean.

Likidazioaz arduratzen diren pertsonen beren eginkizunak betetzeko egiten duten lanagatik erantzun beharko dute, elkartearen, elkartekideen eta hirugarrenen aurrean, Lege honetan kide anitzeko organoko kideentzat aurreikusitako baldintzetan.

Elkartekideekiko eta hirugarren pertsonetikiko betebeharrak sozialak bete ondoren, soberako ondare soziala, halakorik balego, ongintzako erakundeei emango zaie, Elkarteak erabakitako banaketa-moduaren eta zenbatekoen arabera.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko, Batzar Orokorrak Barne Araudi bat onartu ahal izango du, baina horrek ez ditu inola ere Estatutu hauetako aginduak aldatuko.



GAUTENA

PREÁMBULO

GAUTENA (Asociación Guipuzcoana de Padres de Afectados de Autismo, y otros trastornos del espectro autista, también Asociación Guipuzcoana de Autismo), promueve, desde el compromiso ético, la gestión de los apoyos personales necesarios para que cada persona con trastorno del espectro autista (TEA) o con discapacidad intelectual (DI) y/o del desarrollo (DID) y su familia, puedan disponer de las oportunidades adecuadas para alcanzar la calidad de vida plena en una sociedad favorecedora de la inclusión.

GAUTENA es una asociación de familiares de personas con trastorno del autismo, creada en 1978, que, desde sus inicios, buscó el concierto con las administraciones públicas competentes para su cofinanciación. Teniendo como ámbito geográfico de actuación Gipuzkoa, GAUTENA fue poniendo en marcha, desde finales de los setenta, una red de servicios integral que diera apoyo a las personas con Síndrome de Autismo y años después, a todas las englobadas en el concepto de personas afectadas por Trastornos del Espectro del Autismo (TEA) o con DI y/o del Desarrollo y a sus familias, a lo largo de todo su ciclo vital, siempre con una visión comprehensiva e integradora de la respuesta a las necesidades de estas personas.

Las propuestas que GAUTENA fue realizando fueron positivamente acogidas por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, quien, desde los ámbitos de Servicios Sociales, Educación y Sanidad, fue paulatinamente apoyando y consolidando, desde el punto de vista económico y conceptual el funcionamiento de los servicios especializados que se iban ofreciendo desde GAUTENA.

En consecuencia, GAUTENA gestiona Servicios de Atención Intensiva para las personas con mayores necesidades de apoyo (que exigen mayores dotaciones de recursos humanos, económicos y materiales). Estos servicios de Atención Intensiva comprenden los servicios de Educación, Atención de Día y Vivienda, cuya puesta en marcha, siguiendo el ciclo vital de las primeras personas atendidas, fue el motivo y razón de ser de la creación de GAUTENA. Junto a ellos, GAUTENA también presta actualmente servicios de Diagnóstico y Tratamiento Ambulatorio, de Estancias Temporales, de Ocio y Tiempo Libre y de Apoyo a Familias.



GAUTENA

CAPÍTULO PRIMERO

DENOMINACIÓN

Artículo 1.- Los presentes Estatutos de la Asociación sin ánimo de lucro, GAUTENA (Asociación Guipuzcoana de Padres de Afectados de Autismo, y otros trastornos del espectro autista, también Asociación Guipuzcoana de Autismo), de Donostia-San Sebastián, Nº de Registro RPG 991, Sección 1ª, constituida con fecha 1 de Agosto de 1978, e inscrita con el nº 991 en el Registro Provincial de Asociaciones con fecha 24 de Agosto de 1978, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de asociación y en la Ley 7/2007, de 22 de Junio de Asociaciones de Euskadi, por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria celebrada con fecha 24 de noviembre de 2021.

